

# STEE-EILAS

HAURRESKOLAK



## Horrelakoak gara eta horrelakoxeak nahi dugu izan

1. Gure historia ez da oraingoa. 30 urte daramagu lanean, gure sorrera 70eko hamarkadan eman baitzen. Urte haietan irakaskuntzako langileen mugimendua indartsua zen eta beste sektore batzuek bezala asanblada eta lantokietako ordezkarien bidez zegoen antolatuta. Mugimendu haietatik sortu zen **STEE-EILAS** sindikatua eta gaur egun Hego Euskal Herriko hezkuntza maila desberdinetako ikastetxeetako langileak biltzen ditu, irakasleak, hezkuntza laguntza eta zerbitzuetako langileak, Haur Eskoletatik Unibertsitate-raino.
2. Euskal Eskola Publikoa aldarrikatzen jaio ginen eta borrokan dihardugu sare publikoa Euskal Herriko errealtatean oinarritutako hezkuntza sistemaren bizkarrezurra izan dadin. Sistema publiko indartsua eskatzen dugu, kualitatiboki nahiz kuantitatiboki. Kontrako haizeak nagusi badira ere, eredu neoliberal, klasista eta pribatizatzaileen aldeko apustua egina ditzutenak edo uniformetasun estatala bilatzen dutenak, publikotasuna eta euskaltasuna uztartzeko konpromisoarekin jarraitzen dugu, guretzat txanpon bereko bi aldeak baitira.
3. Eskola inklusiboa, guztion eskola defendatzen dugu, desberdintasun

sozial eta muga pertsonalei (fisikoei, psikikoei...) aurre egiteko gai dena, berarek konpentsatzen saiatuz. Aniztasun honek gero eta zentzu handiago du, milaka baitira urtero Euskal Herrira etortzen diren etorkinak. Fenomeno hori, guretzat aberasgarria da bi aldeetarako. Horrexegatik, eskolak hainbat gauza bermatu behar du: aukera berdintasuna sustatzea jatorrizko ezberdintasunak alde batera utzita, arrazoi pertsonal edo sozialen ondorioz sortutako aldeak berdintzea segregazioa ekiditeko, elkartasuna sustatzea eta ez indibidualismoa, lankidetzeta eta talde-lana lehiakortasunaren aurrean, hezkidetzeta eta ez sexismoa eta, azken finean, pertsona kritikoen garapen integrala eta ez prestakuntza profesional hutsa.

4. Hezkuntzak kalitatezkoa ere behar du izan, gizarte modernoaren erronka berriei erantzuteko modukoa. Baliabideen falta salatzen dugu edonon, ezinbestekoa delako hezkuntza gastua handitzea, Administrazioaren inplikazio zuzenarekin. Horrela hezkuntza sistema integrala, laikoa, euskalduna, dohainik 0 urtetik hasita, koheziotzailea, solidarioa eta parte hartzearen aldekoa, euskal gizartearen pluralismoa berea egiten duena lortuko dugu.

5. Euskararen defentsa eta normalizazioaren aldeko mugimenduan gure inplikazioa handia izan eta izaten da, aldi berean, langileak euskaraz birziklatzea bultzatu dugularik. Eskolak ikasleriaren euskalduntzea bermatu behar duelakoan gaude, aukera berdintasuna eta kohesio sozialaren mesederako. Hizkuntza normalkuntza eta uztartze sozialerantz joan behar duen prozesu honetan malgutasunez ezarritako murgiltze planen bidez, eredu sistema gainditzera iritsi behar dugu.
6. Sindikatu nazionala gara –**STEE-EILAS** hedaturik dago Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan– herri bezala gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen duena, era demokratikoan eta kanpo esku-hartzerik gabe, Euskal Herrian ditugun errealitate ezberdinak kontuan hartuz. Inor eta ezer ezin liteke herri borondaterakoen galga izan. Hamai-ka kolorez osatutako gizarte bat aberasgarria izan liteke elkarren arteko oinarrizko balore batzuk eta gutxiengoak zein gehiengoak onartutako joko arauak sortzeko gai bagina. Pertsona guztiak, ideia guztiak eta proiektu guztiak, zilegiak ez ezik, baliagarriak eta beharrezkoak ere baitira. Aniztasuna, ideologikoa zein sentimendu nazionalari dagokiona,

izan da gure nortasun ikurretako bat. Dogmetatik ihes eginez, guztien artean ditugun balioetan oinarritzen gara jarrera finkatzeko, elkarrizketa eta ikuspegi irekiz, posible baita desberdintasunak gainditzea. Eta horixe izan daiteke euskal gizarteari egiten diogun ekarpenik garrantzitsuena.

7. **STEE-EILAS**ek uste du gure herriak pairatzen duen gatazkak izaera politikoa duten oinarri historikoak dituela eta bereizkeria nahiz alde aurreko baldintzarik gabeko elkarrizketa dela konponbidea. Halaber, gure ustez, guztientzako giza eskubideen defentsak, indarkeriarekiko arbuioak eta euskal gizartearen borondate demokratikoarenganako begiruneak osatzen dute bakea eta normalizazio politikoa lortzeko gakoa. Euskal Herriko hiritarrok eskubidea dugu baita ere gure etorkizun politikoaz erabakiak hartu eta berauek bermatuak izateko, benetako normalkuntza politikoa lortu nahi badugu.
8. Segitzen dugu aldarrikatzen bakea eta normalizazio prozesuaren jarraipena, ondoratu nahi dutenen ahaleginek –edonorenak izanda ere– kezkatzen gaituzten arren. Eragile guztiak gaude beharturik –bakoitzak ahal dugun neurrian– euskal gizartea ozenki eskatzen ari dena bideratzen

**HORELAKOAK GARA  
ETA HORELAKOXEAK NAHI DUGU IZAN**



3

## HORRELAKOAK GARA ETA HORRELAKOXEAK NAHI DUGU IZAN

- saiatzeko. Hori dela eta behin betiko su etena aldarrika dezan eskatzen diogu ETArri, indarkeriaren bidea erabat baztertuz, gatazkaren konponbidea eta bakea lortzeko ezinbesteko baldintza baita. Baina beste aldetik, ezin dugu ahaztu une hauetan espainiar gobernuak duen erantzukizun historikoa ere, prozesua bukatutzat ez emateko, atzeraezinezkoa izan dadin. Euskal Herriko hiritarrok eskubidea dugu bakea eskuratu eta edozein motatako indarkeriarik gabeko egoera batean bizitzeko, non –bizitzari errespetutik hasita– inolako giza eskubideen urraketarik ez den emango, ez atentaturik, ez mehatxurik, ez torturarik, ez espetxe politika krudelik, ezta bazterketa politikorik edota jazarpn judicialik ere.
9. Irakaskuntzako sindikatua gara eta bertan lan egiten dugun langileen eskubideak eta lan baldintza egokiak defendatzen ditugu. Prekariatatearen kontra daramagun borroak, enplegu egonkortasunaren aldekoak, lan banaketarako neurriek edota lan osasun eta berdintasunaren aldekoek argi adierazten dituzte gure lehen-tasunak. Baina ez dugu hor gelditu nahi eta gizarte honetako baztertuen ondoan kokatu nahi dugu geure burua: oinarrizko soldata, aberastasuaren banaketa, etxebizitza duina,

zaintzarako sistema, garapen jasangarria... Gizarte mugimenduekin batera (feminismoa, internazionalismoa, ekologismoa...) injustziaren aurrean egiten diren salaketak nahiz mobilizazioetan hartzen dugu parte eta, aldi berean, berdintasun eta elkartasunaren aldeko proiektuekin bat egiten dugu. Globalizazioaren aurkako mugimenduak aldarrikatzen duen eraldakuntza sozialaren beharra ikusten dugu, uste baitugu “Beste mundu bat” posiblea dela.

10. Gure eredu sindikala asanblada mugimenduan dago oinarriturik eta erabakiak sobirotasun osoz hartzen ditugunez, ez gatoz bat sindikalismo agintzaile eta burokratikoarekin.

30 urte hauetan, **STEE-EILAS**en saiatu gara –eta horretan dihardugu– irakaskuntzako langileentzako elkargune izaten, non Euskal Herria justuagoa, solidariagoa, demokratikoagoa eta librea goaren bidean, desberdintasuna, injustizia eta Euskal Eskola Publikoaren aldeko kezka, ilusioak, borrokarako grina, eztabaida, lana eta mobilizazioa konpartitu ahal diren.



## Haur hezkuntzan murgilduta badugu zer esana, badugu zer esanik

### Aspaldiko aldarrikapena

Haur Hezkuntza behar bezala garatzea aspaldiko aldarrikapena da eta horren alde **STEE-EILAS**ek bere ibilbidean hainbat gizarte eragileekin bat egin du; eskuz esku izan gara sindikalistak, berrikuntza pedagogikoko mugimenduak, guraso elkarteak, haur eskolen plataformak, auzo elkarteen mugimendua eta mugimendu feminista bera, eztabaidan eta elkarlanean. Lan esparrua baino askoz gehiago dira haur eskolak, jendarte osoak haurtzaroari ematen dion tratamenduaren isla dugu bertan.

**STEE-EILAS**en lan baldintzak hobetzen aritzeaz gain sistema mota bat ere defendatzen dugu.

### Zerbitzu publikoa

Umeak atenditzeko mota askotako neurriak bultzatzen ari dira instituzioetatik: banakako dirulaguntzak zaintzaileak kontratatzeke, eszedentziak eta baimenak gurasoentzat... Neurri guztiak onak izan badaitezke ere, diru publikoa zerbitzu publikoak sortzeko erabiltzea lehenesten dugu, zeren eta:

- Haur Hezkuntzak ez du familiaren esparrua ordezkatzeko, umei aukera gehiago eskaintzen dio familia soilak baino.
- Kohesio sozialari begira positiboa da.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko bide bat da ere, emakumeengan jausi ohi da adin honetako umeen ardura osoa, eta bestelako neurriak (eszedentziak...) ia emakumeek soilik hartzen dituzte, haur eskolen ezarpenak, berriz, lan hori gizarteratzen du.
- Errazagoa da kontrol publikoa ezartzea zerbitzu publikoetara doan diruaren gainean erabilera pribatura doanaren gainean baino.
- Lan baldintza duinak lortzeko borrokatu ahal dugu haur eskoletan baina kontratazio pribatuen bidez etxe barruan ematen diren gehiegikeriak kontrolaezinak dira.





### Hezkuntza sistema integrala

Haur Hezkuntza bere osotasunean hartu beharrean, etapa hau mailaz maila ezartzen joan da Lehen Hezkuntzako zentroetan alde batetik, eta 0-2rako Haurreskolak Partzuergoa sortu da, bestetik. Dinamika honekin oso kritikoak izan gara hasieratik zeren eta:

- Gure inguruan 30 urteko esperientzia zuten hainbat Haur Eskola eta haien ondare pedagogikoa ez dira kontuan hartuak izan. Gainera, “historikoe” zuten gauza on batzuk bidean bertan behera utzi dira, nabarmenenak sukaldarien desagerpena edota 2 urteko gelak kentzeko saiakerak ditugu.
- Lehen Hezkuntzako zentroak ez zeuden lehen haurtzaroaren beharretara erantzuteko prestatuta, gaur egun ere ordutegi finkoak, profesionalen arteko funtzioen banaketa (jantokiko monitoreak/gelako irakasleak..) eta denbora nahiz espazioen antolaketa ez dira egokienak.
- Hezkuntza Sailak ziklo osoa bere gain hartu beharrean Partzuergoa sortu du, horren ondorioz:
  - Haurreskolen sorrera udalen eskuetan geratzen da, zonaldeen artean desoreka handiak sortuz.
  - Zikloaren perspektiba galduta dago.
  - Haurreskola gehienak txikiegiak dira eta errekurtsioak ezin dira ondo aprobetxatu.
  - Ikasle bakoitzak bi ikasturte baino gehiago ez duenez ematen zaila da eskola komunitatea sortzea eta gurasoen benetako partaidetza bultzatzea.

Guk, aldiz, Hezkuntzako etapa guztiak Hezkuntza Sailaren esku, sare publiko sendoa osatuz eta kalitate onekoa eta dohainik izan daitezen aldarrikatzen dugu, non edozein adinetan sartuz gero bermatuta dagoen ondoko ikasturteetarako jarraipena, eta non profesional guztien lana baloratzen den.





## Guztiei zabalik

Lehen urteetako eskolarizazioa umeen arteko jatorrizko ezberdintasunak konpentsatzeko baliagarria dela esaten da hainbat lekutan, legean bertan ere. Nekez beteko dugu funtzio hori jatorriz egoera larriena pairatzen duten umeak ezin badira eskolara etorri. Alde batetik plazak falta dira populazio asko duten zonalde batzuetan, eta bestetik ordaindu beharreko kuotak oztopo gairdiezina da errekurtso gutxi dutentzat, bekak oso berandu ordaintzen dira eta. Kanpo geratzen den multzo horretan beste herrialdeetatik etorritakoen seme alabak daude ere, hasierako bazterketa hau ekiditea kulturartekotasuna lantzeko lehen urratsa litzateke hezkuntzan eta jendarte osoan. Berehala bermatu behar da egoera sozioekonomiko baxuan aurkitzea ez dela haurreskolaratzeko oztopoa izango.

## Euskalduna, noski

Arlo askotan lan egin behar da euskarak dagokion lekua izan dezan, hau da, esparru guztietan euskaldun guztiek erabilia izan dadila; hala ere, ezin da ukatu eskolak duen zeregin estrategikoa euskararen ezagupena eta erabilpena bultzatzeko belaunaldi berriengan, are gehiago hainbat haurrentzat eremu euskaldun bakarra denean.

## Hezkuntza Sistema, besterik ez

Pertsona guztiek jaio direnetik hezkuntzarako eskubidea dute, haien beharretara egokitzen den hezkuntzarako; ez ditugu ontzat ematen Haur Hezkuntzako Lehen Zikloan “haur eskolak” eta “benetako eskolak” kontra jartzen dituzten diskurtsoak, are gutxiago “hezitzaile” eta “zaintzaile” kategoria ezberdinak ezartzen dituzten arauak.

Adin hauetako umeentzat kalitate oneko eskolak nahi ditugu non parekoekin sozializatu, ikasi, jolastu, elikatu eta deskantsatu egingo duten beraien gaitasun guztiak garatu ahal izateko. Helburu hauek lortzeko baliabide nahiko eta egokiak behar ditugu.

## Kalitateko zerbitzua

Pertsonen bizitzan une guztiek inportantzia badute ere, bereziki zaindu behar dira haurrek egiten dituzten lehen esperientziak; lehen urteetan sortutako kalteek, fisiko nahiz psikikoez bizitza osoan iraun dezakete, era berean, jatorrizko arazoak detekta-

tzeko eta pairatzeko aukera ezin hobea dugu lehen urteetan. Eskolaratze goiztiarra oso ekarpen positiboa eta aberasgarria izan daiteke baldin eta baldintza onetan ematen bada, horregatik garrantzi handia ematen diogu pedagogia aurrerakoian oinarritutako praktika egokiak bermatzeari.

- Premia bereziak atenditzeko errekurtso propioak (Berritzeguneak) behar ditugu, gaur egun gurasoei azaleko informazioa eta susmoak komunikatu baino beste laguntzarik ezin diegu eman haurreskolan, hau ez da nahikoa.
- Ratioak murriztu behar dira haurrei arreta onena emateko eta prestakuntza pedagogikoa gauzatzeko.
- Jantokiak haurreskoletako zerbitzua benetan kalitatezkoa izateko, jantoki-zerbitzua eskaini behar da. Txikien elikadura oso garrantzitsua da eta gainera, sukaldea izateak eta horrek dakarrena (erosketak...) funtzio pedagogikorako oso aukera baliagarria izan daiteke. Horrexegatik, haurreskoletan sukaldatuko luketen langileak kontratatu behar direla uste dugu. Eredu dugu historikoez zutena, non sukaldaritza eta horri dagokion garbiketa pertsona batek egiten zuen.
- Instalazioen diseinua funtzionalitatearekin, segurtasunarekin eta hezkuntza-tratamenduarekin bateragarria izan behar da. Egun haurreskolen instalazioak arautzen dituen legea nahiko eskasa da, eta, hala ere, ez da kasu guztietan betetzen. Ez gara legea bete dadila eskatzera mugatu nahi, Partzuergoak Mobeducekin egindako txostena aholku-agiria izateaz gain, betebeharrekoa izatea nahi dugu. (Txostenak hutsune batzuk izanda ere, kotxetxoak gordetzeko biltegiarena, alegia). Hezkuntza Sailak arlo honetan arautzeko duen eskuduntzak erabil ditzala exijitzen diogu, aholkua dena lege bihurtuz.



## Lan baldintzak

### Hezitzaileentzat egonkortasuna

Oposaketak egin ala ez, hezitzaileen egonkortasuna bermatzearen alde borroka egingen dugu.

Hezitzaileen egonkortasun handiagoa bermatuta baldintza hobeak izango dira; horrela heziketa-proiektuak bideragarriagoak egiteko, epe ertain eta luzera planak sortzeko, haurreskolen antolaketa egonkorragoa egiteko, haurren jarraipen egokia antolatzeko eta, azken batez, hezkuntza zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

### Ordezkapen Sistema beharretara egokitu

Oinarrizko ardatzetakoa, ezin bestela izan, ordezkapenak eta ordezkoak dira. Ordezko hezitzaileak dira babesik txikiena dutenak. Argi dago ez dela erraza egun bat hemen eta bestea beste puntan ibiltzea. Hezitzaileen arteko egoerarik eskasena duen taldea izanik, berme eta babes maila altuena izan behar du; ordezkoen zerrendak kudeatzeko araudi eta prozedurak hobetu eta egokitu behar dira.

Bakanteak esleipenetan soilik eman behar dira, hori baita plazak ematerakoan zerrendako ordena errespetatzeko modu bakarra.

Suertatzen diren ordezkapen guztiek lehenengo egunetik, lehenengo ordutik, beteta egon behar dute. Ez dugu onartzen norberaren eskubideak direla eta, hartutako orduek, haurreskoleko lankideen lan karga handitzea.

Hezitzaile berriak errazago animatuko ziren haurreskoletan lan egiten kontratu luzeagoak eskainiz gero. Ordezkapen laburrak (egun bateko edota bikoak) "ibiltarien" bitartez bete daitezke. Ibiltariak zonalde konkretu bateko ordezkapen laburrak beteko lituzke eta bakantedun kontratua edukiko luke. Suertatzen diren ordezkapen luzeak, ordea, ordezko arrunten bidez beteko lirateke.

### Haurreskoletako osasuna eta segurtasuna

Lan-Osasunari dagokionez, Partzuergoak behingoz legea bete beharko luke; hala nola, haurreskoletako arriskuen ebaluaketa, prebentzioan formatzea langile guztiak, langileen osasunaren jarraipena... martxan jarri behar du.





Bereziki arriskutsua da hezitzaile bat bakarrik egotea umeeekin Haurreskolan. Egoera larri hau, Partzuergoa sortu zenetik pairatu duguna, bukatu behar da.

Honetaz aparte, gure sektorean gihar-hezurretako arazoei eta haurren infekzio-gaixotasunak hezitzaileak kutsatzeari buruzko ikerketak egin behar dira.

Gainera, oinarrizkoa ikusten dugu haurreskola bakoitzean segurtasun eta osasun ardurak betetzeko formazio egokia eta beharrezkoa den ordu kreditua dituen hezitzailea egotea.

### Koordinatzailearen lana erraztu

Koordinazioaren ardura hartzeko momentuan dauden arazoak denok ezagutzen ditugu, inork ez du nahi eta. Ez dugu uste beste figura mota bat sortu behar denik, ezta inolako hierarkizazioa sortu, baizik eta hezitzaileek ardura hori lasaitasunez hartu ahal izateko lana erraztu behar dela. Koordinazioak baldintza onetan eginda ez du zama izan behar, alde onak izan dezakeen epe bateko lanaz aldaketa baizik.

- **Kudeaketa bideratu.** Haurreskolak eta Partzuergoaren arteko elkarlana egoki eman dadin, komunikazioa arindu behar da:
  - Eibarren infrastruktura gehiago behar da eskoletatik zuzendutako deiak eta mezu elektronikoak jaso ahal izateko.
  - Koordinatzaileak bere ardurak egiteko ordutegi bat finkatu baldin badu, Partzuergoak kontakturako ordu horiek errespetatu ditzan aldarrikatzen dugu.
- **Formakuntza eta ordu kredituak.** Aipatu ere, Koordinatzaile formakuntza gehitzea beharrezkoa ikusten dela, baita ordu kreditu gehiago ere lan guztia egin ahal izateko.
- **Ondorengo ordaina.** Besteak beste, karguaren arduraren truke, epe sabatikoa (ordaindutakoa) eskatzeko aukera egon beharra dagoela ikusten dugu.

## Lan orduen murrizketa

Gaur egun betetzen ditugun 1592 ordutatik, Hezkuntzan dauzkaten lan ordu kopurura, 1463 ordura, gerturatzea nahi dugu, lan egun gutxiago eskatzen dugu. Honek ez dakar haurreskoletako egutegia zuzenean murriztea, gaur egun hezitzaileen eta haur eskolen egutegia ez datoz bat. Egun libreak hartzeko malgutasun handiagoa behar dugu, egungo sistemak ez du asetzen hezitzaileen beharrak ezta eskolenak ere, markaturiko epeetan ordezeko falta ibiltzen gara eta.

## Formakuntzarako liberazioak

Beharrezkoak diren titulazioak ateratzeko lehentasuna emanez (historiko batzuk kasu) liberazioak eskatzen ditugu. Titulazioak lortuta, etengabeko formakuntzarako ere erabil daiteke liberazio kopuru bat, aukerak handituz.

## Lan banatzea

Ordaindu gabeko borondatezko eszedentziak eta baimenak hartzeko aukerak ahalik eta zabalen izan daitezen nahi dugu, norberak bere bizitza antolatu ahal izateko eta lana banatzeko. Helburu bikoitza hori betetzen duten ere beste neurriak bultzatzen ditugu, kasu honetan ordainduta izango liratekeenak:

- 55 urtez gorakoentzat borondatezko arreta zuzeneko ordu murrizketa.
- Tarte sabatikoak koordinatzailea izan eta gero.

## Familiarrak medikuarenera eramateko baimena

Seme-alabak edota bikotekidea medikuarenera laguntzeko baimena lortu nahi dugu.

## Gure seme alabak Haurreskoletan sartzeko aukera

Esan ohi digute udalek ez dutela hezitzaileentzako lehentasuna onartu nahi, haiek sortutako zerbitzuak bertan bizi direnentzat baitira. Gure ustez ondorengo etapetan egiten den bezala, baremoan lantokia udalerrian izateagatik puntuak ematea gutxieneko aldarrikapena litzateke. Herri guztietan behar beste plaza sortu behar dira.



**E**skola Publikoa indartzeko eta ardatza izan dadin hezkuntza politika aldatu.

**U**tzi alde batera joera pribatizatzaileak, hezkuntza eskubidea da.

**S**are publikorako aurrekontuak handitu.

**K**alitatezko hezkuntza 0 urtetik aurrera.

**A**niztasunak dakarzkigun erronkak bideratzeko beharrezkoak diren baliabideak.

**L**ehen haurtzaroak arreta duina jaso dezan Hezkuntza Sailak partzuergoa bereganatu.

**E**lkarbizitza eta elkarrizketa bidea hezkuntzan zein euskal gizartean.

**S**istema propioa lortzeko berezko negoziazioa eta erabaki esparrua.

**K**onpromezua benetako berdintasunaren alde emakumezko eta gizonezkoen artean.

**O**-3tik euskararen normalizaziorako oinarriak jarri.

**L**an baldintza parekoak hezkuntza osoan.

**A**ntiglobalizazioaren alde, beste mundu bat posible da eta.

**P**artaidetza bultzatu, eskola komunitatea indartu.

**U**xatu bazterkeria gure haur eskoletan, kuotarik ez, plaza guztientzat.

**B**aimenak eta lizentziak zabaldu eta errespetatu.

**L**iberazioak formakuntzarako, titulazio falta duten langile historikoekin hasita

**I**rakaskuntzarekin zuzenean loturik dauden lan-gaisotasunen errekonozimendua.

**K**oordinaziorako behar beste denbora. Hezitzaile guztien lan ordu kopurua murriztu.

**O**rdezkapen sistema benetako beharrei egokitu.

**A**urrejubilazioetarako plan sendo bat.